



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

«Oraindik ere
jendeak ez daki
ekoizpen
ekologikoaren
atzean zer
dagoen»

en erosketa erabakietan. Aipatu-tako lau erabaki multzoen gako-ak azpimarratu behar izanez ge-ro, banaketan eta komunikazio erabakietan egongo lirateke. Al-de batetik, Euskal Herriko pro-dukto ekologikoen eskuragarri-tasuna oraindik ondo garatua ez dagoenez, zaila da kontsumitzaileak bilatzen duen hori topatzea, sektorearen garapenaren kalte-tan. Beste aldetik, oraindik ere jendeak ez daki ekoizpen ekolo-gikoaren atzean zer dagoen.

«Nekazaritza ekologikoko eli-kagaien banaketa politikaren kudeaketa iraunkorra: adie-razle sistema holistiko agroekologikoaren proposamena».
Doktoretza tesi batek izenburu luzea izan behar du ala?

Kar-kar! Ez, kontua da horrelako ikerketa eta ekarpenak oso gai zehatzen inguruan egiten ditugula, eta horrek eragin du gai ezberdin asko aldeztu aurretik landu behar izatea. Azkenean, eginda-ko lana esaldi bakarrean labur-biltzeko modua besterik ez da.

Eta labur esanda, zertan datza zure ikerketak?

Esan bezala, produktu ekologi-koen merkaturatzea ikuspegi agroekologiko batetik aztertuta, esperientzia eta proiektuen ba-naketa erabakiak baloratzeko tresna garatu dut, adierazle sis-tema bat. 35 adierazle dira, lau lerrotan antolatuta: a) oreka ekologikoa; b) tokiko garapena eta lurraldearen dinamizazioa; d) justizia soziala eta egonkortasun ekonomikoa; eta e) harre-man sistema. Lerro bakoitzak agroekologiaren dimentsioak zaintzea du helburu. Nolabait, adierazle sistemak laguntzen di-gu erantzuten galdera bati: nola zaintzen da proiektu edo espe-rientzia bakoitzean elikagai eko-logikoen banaketa ikuspegi agroekologiko batetik? Horrela, lerro bakoitzean neurketak egi-teko sistematika ezartzea beha-rrerzkoa izan da. Adierazle bako-

Orain dela bede-ratzi urte Biolu-rrekin kolabo-ratzeko lehen aukera sortu zi-tzaion, Gipuz-koako Foru Aldundiak produktu ekologikoen merkaturatzeari buruzko gaiak lantzeko emanda-ko diru laguntza bat tarteko. «Le-hen ikerketa hartatik Biolurreko Merkaturatze Lantaldea sortu zen, urte batzuek iraun zuena, el-kartu eta hausnarketa kolektibo-rako espazioak landuz. Eraitza positiboak lortu dira dinamika horietatik, Basherry taldeak adi-bidez». Otsailaren hasieran bere doktoretza tesia aurkeztu zuen, elikagai ekologikoen banaketan zentratzen dena.

Ekonomialaria eta agroekolo-giaren aldeko aktibista. Nola moldatzen zara binomio ho-rretan?

Ekonomiak ez dauka oso prentsa ona, ezagutzen dugun eredu ekonomiko kapitalistarekin eta bere egiteko moduekin lotzen delako. Ekonomia “etxearen ku-deaketa” da, eta hori egiteko era desberdinak daude. Gaur egun “truke-balioa” da hartu-eman ekonomikoetan nagusitzen de-na, horren ordez, “erabileraren balioa” da nekazarien ekonomia teoretan darabilten kontzeptua. Ezberdintasun horretatik aukera berriak irekitzen dira kapitalis-moari alternatiba ekonomikoak garatzeko eta justizia soziala eta egonkortasun ekonomikoa lor-tzeko. Prozesu ekonomiko iraun-korrak garatzeko bide horretan, beharrezkoa da kateko eragile guztiok beharrezkoak diren tres-na eta formazioetan inplikatzeko, arrotzak egiten badira ere, sen-tsibilitate desberdineko elkargu-ne baliagarriak sortuz.

Herritar xumeak nola eragin dezake aldaketa horretan, zure ustez?

Herritar eta kontsumitzaile ikus-pegitik gure dirua nora bidal-

tzen dugun ondo baloratzeko eta gauza fisikoei merkatu baloretik harago balio soziala eskaintzen dizkieten proiektu ekonomikoetan parte hartzea interesgarria litzateke. Horrek ez du esan nahi denok landa gunean edo mili-tantzian sartu behar garenik bu-ru-belarri, bizitzan beste gauza batzuk izan ahal ditugulako gus-tuko. Izan ere, eguneroko politi-ka gu geu garenetik abiatu be-harko da bide eta bizigune iraunkorrak eraiki nahi baditu-gu, kontuan izanda betiere iraunkortasun ekonomikoa nahitaezkoa dela gure proiektuek bizirauteko.

Iraunkortasun ekonomikoaz ari garenean marketinak zere-san handia du, baina «marke-tina» bera ere ez da oso kon-tzeptu estimatua sektore ekologikoan... Zer den ulertzea falta zaigu?

Nire iritziz bai. Marketinak merkatu logika baten eremuan lan egin du, inolako zalantzarik ga-be. Baina, marketinak, diziplina bezala, nahiz eta maiz publizita-te hutsarekin nahasten dugun, edozein proiektutan hartzen di-tugun beste hainbat erabaki bil-tzen ditu, lau nagusiki: produk-tua, prezioa, komunikazioa eta banaketa. Marketin erabakiak produktua bera ekoizten hasi aurretik lantzen dira. Merkaturatzea, aldiz, behin produktua bukatuta dagoenean egiten dena da; bi gauza ezberdin dira. Bizi dugun testuinguruan, proiektu bakoitzak bere helburuekin bat datorren tokia topatu behar du.

Marketinaren alorrean, Euskal Herriko ekoizpen ekologikoa-ri dagokionez, zeintzuk lirate-ke gakoak?

Euskal Herriko baserritarren ekoizpen ekologikoaren kalita-tea oso ona da oro har, nahiz eta hobetzeko alderdiak ere badiren; eta prezioa, ikerketek azalera-tzen dutenez, ez da mugatzaile nagusietako bat kontsumitzaile-

MIRENE BEGIRISTAIN
ZUBILLAGA

EKONOMIAN DOKTOREA,
UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA
ETA IKERLARIA

Ekonomialaria eta militantea, Gipuzkoako elikagai ekologikoen sektorearekin estuki lotuta dago. Uztaro kooperatibako eta Biolurreko kidea da.



Argazkiak: GAUR8

*«Euskal Herriko
baserriek duten
txikitasunaren
testuinguruan,
komunitatea eta
bizitza soziala
elikatuko duten
proiektuak lehenetsi
behar ditugu»*



tzak bere azalpen fitxa dauka, baita dagokion ebaluazioa (otik 5era) egiteko irizpideak eta puntukako mailaketa.

Adierazle sistemaren eraikitzea bibliografia azterketa sakon batean oinarrituta dago, baina elikagai ekologikoen sektoreko eragile ezberdinekin batera ere egin nahi nuen ikerketa. Horrela, agroekologiaren metodologiekin bat datorren ikerketa, ekintza parte hartzailearen logikarekin garatu nahi izan dut. Adierazle sistema eraiki eta gero, Estatu espainolean fruta eta barazki ekologikoak banatzen dituzten 40 esperientziatan probatu eta balioztatu nuen. Beraz, ikerketak badu bokazio eraldatzailea; adierazle sistema praktikan jartzen duenak hobekuntzarako gogoia izan behar du.

Nola lagun diezaioke ekoizle bati?

Autoebaluaziorako metodologia bat da, hobekuntzarako tresna, prozesu moduan ulertu behar dena. Eta ez da baliagarria ekoizleentzat soilik, administrazioak ere, bere kontratu publikoetan, tesian garatutako irizpideak eta adierazleak erabil ditzake elikagaien horniketan elikadura burujabetza lehenesteko. Adierazle sistema fruta eta barazkietarako

eraiki dugu, baina adierazle batzuetan aldaketa txiki batzuk eginda beste elikagai ekologikoentzat ere baliagarria da (hargia, esnekiak...). Adierazle sistemaren beste puntu indartsu bat beste proiektu batzuekin alderaketak egiteko ematen duen bidea da. Nire ustez hor dago bere potentzialtasun handiena: adierazle sistema hau taldean landuz gero askoz ere aberasgarriagoa izan daiteke, agroekologiaren ikuspegi batetik proiektu bakoitzak non kokatzen den azalartzen duelako.

Uste dut proiektu agroekologikoetan etengabeko hausnarketa ezinbestekoa dela, agian hasiera batean ezarritako “marra gorriak” gainditu egin behar dira, malgutu, gure aliatuak izan daitezkeenak gure proiektuetara biltzeko eta proiektua bera agroekologiaren baitan garatuz joateko. Sistematika honek lagun dezake horretan.

40 esperientzia ezberdinetan probatu duzu sistema. Zein izan da ateratako ondorio nagusia?

Nekazaritza ekologikoaren alorrean mota guztietako proiektuetan probatu dut adierazle sistema, baita eredu erabat kapitalistan oinarritutako espe-

rientzian ere. Guztiek badituzte zenbait ezaugarri komun, esaterako, guztiek dute lotura bat ingurumenaren jasangarritasunarekin. Adibidez, elikadura ekologikoaren sektorean, baita proiektu industrialetan ere, produktuen formatuak eta hondakinen kudeaketa asko zaintzen dira, helburu desberdinengatik bada ere, jasangarritasun irizpideekin lotuz. Beste ezaugarri komun bat da iraunkortasunaren laugarren hankan, “harreman sisteman”, gabezia handiak daukela. Atal horretako sozializazioan eta baserri kulturaren irizpidean kale egiten dugu. Baserri kultura ez da transmititzen, elikaduraren arima bera ez da transmititzen. Hori gabezia garrantzitsua da.

Berriz ere arazo berdineratatzeko, kontsumitzaileak duen informazio eskasarena... Ezjakintasun horretan interes faltak ere izango du zeresanik, ezta?

Baita ere. Janaria ez da egungo euskaldunaren ardura nagusietako bat, familien aurrekontuetan elikadurak duen garrantziak argi uzten du hori (60 urtean, etxeetan gastatzen zenaren %55 suposatzen %16 izatera pasa da elikadura). Egun beste motibazio

batzuk daude eta, gainera, hirien eta landa eremuaren artean haustura handia dago. Informazioa ematean ikuspegi paternalista zabaldua dago: ‘Hau horrela da, eta zuk hau jan, zuretzako ona da eta’ eskemaren ordeztu, azterketa kritikorako bidea eman behar du informazioak. Komunikazioak norbanakoaren eta komunitatearen elikadura burujabetza lantzeko bokazioa izan behar du.

Batzuetan badirudi proiektu agroekologikoen marra gorri horietako bat ziurtapen ekologikoa «bai ala ez» dela. Zein da zure iritzia?

Euskal Herriaren eremuan, ekoizpen ekologikoaz ari garenean, nekazari txikiek ari gara, giza neurrikoak, nolabait esateko. Euskal Herriko nekazaritzari erreparatuta, ziurtapen ekologikoa eta agroekologia eskutik doaz. Ekoizleak hartzen duen konpromiso bat da. Nik uste zigiluak ekoizleari eskaintzen dion “plus” nagusia multikanalitatea dela, salmenta zuzenetik kanpo beste kanal batzuetan (komertzioak, ostalaritza...) merkaturatzeko aukera, eta hori garrantzitsua da proiektuen iraunkortasunerako. Edonola ere, identifikatzaileez ari bagara, nik neuk nahiago di-

tut prozesu moduan planteatzen direnak, EHKOren kasu. Ekoizpen ekologikoan oinarritua eta baserriaren lanketa kolektiboaren bitartez “agroekologiaren bidea” egiteko helburua duena. Bertoko ekoizpen ekologikoa garatzeko eta gizarte orokorrari honen atzean zer dagoen helarazteko bokazio hori dauka.

Nekazaritzak testuinguru zaila bizi du aspalditik. Baserri ekoizpenak iraunkortasuna izateko zeintzuk lirateke klabeak, zure ustez?

Harreman sistema indartzea, baserri kultura iraunkorra euskal gizarte osoari transmititzea ezinbestekoa da, betiere folklorismoan jausi gabe. Maila produktiboan, Euskal Herriko baserriek duten txikitasunaren testuinguruan, komunitatea eta bizitza soziala elikatuko duten proiektuak lehenetsi behar ditugu. Baserria beti egon da bere lurraldearen eta komunitatearen sarean kokatuta, eredu industrialak esteka horiek apurtu eta indibidualizatu nahi izan dituen arte. Baserriaren denborak eta erritmoak beste neurri batzuk ditu, eta epe laburreko emaitzen bilaketaren logikarekin talka egiten dute. Hori zaintzea guztion ondarea zaintzea da.